

## **ZUMAIAKO UDALA**

## **GIPUZKOAKO PROBINTZIA**

### **2007KO EKAINAREN HAMAHIRUAN GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO EZOHICO BATZARRALDIKO AKTA.**

Zumaiako hirian, bi mila eta zazpiko ekainaren hamahiruan, arratsaldeko seiretanretan, Alketetzako bulegoetan, Gobernu Batzordea eratu da, ezohiko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez ezarritako eguneko aztergaiari jarraituz. Garaiz eta behar bezala deituta, korporazioko kide hauek bertaratu dira:

#### **LEHENDAKARITZA.-**

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

#### **ZINEGOTZIAK.-**

Asier ESNAL ALBIZU jauna.

Manuel ZUBIA ARTABE jauna.

Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.

#### **IDAZKARIA.-**

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

### **1.- AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA. 2007.- 2007.02.16; 2007.03.30**

Alkate-lehendakari andreak bilera eratutzat eman ondoren, onarpenera aurkeztutako akteri buruz, gobernu abtzordeko kideren batek, zuzenketarik egin nahi duen galdetu du.

Zuzenketa edo emendakinik aurkezten ez denez, bozketa eginda, gobernu batzordekideek aho batez 2007-02-16 eta 2007.03.30 eko datako aktak onartu dituzte.

Beste gairik izan gabe, arratsaldeko sei terdiak direnean, Alkate andreak batzarraldia amaitutzat eman du, eta nik, idazkaria naizen aldetik, fede eman dut.

ALKATEA

IDAZKARIA